

Juan Jose Agirreren eta bere artxiboaren gorabeherak

Lazkaoko Beneditarren dokumentazio-gunea ez da nolana hiko; Juan Jose Agirreren artxiboa da. Nabardurek duten garrantziaren jakitun, izenburu hori jarri dio Joan Mari Torrealdai aita Juan Josereren eta hark orain dela ia 40 urte Lazkaoko Santa Teresa monasterioan sortu zuen artxiboaren ibilbidea jasotzen duen liburuari.

Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren aurreneko argitalpena da atzo Lazkaoko artxibo-liburutegiaren egoitza berrian aurkeztu zen lana. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimenez egindakoa izanik, Maria Jesus Aranburu Kultura eta Euskara foru diputatuak ere hartu zuen parte aurkezpenean, hala nola Lazkaoko alkate Patxi Albisuk.

Liburuko erabateko protagonista, haatik, Juan Jose Agirre da. 81 urte herenegun beteak, gorputzez arin eta adimenez argi baino argiago, aurkezpenean ez zion huts egin bere hizlari trebe famari. Liburuan ere bere ahotsa da nagusi, liburu eta artxibozain beneditarraren testigantza bere hitzen bitartez eta lehen pertsonan ematea erabaki baitzuen Joan Mari Torrealdai liburuaren - 'liburuttoa' esaten dio hitzaurrean- ezaugarriak finkatu zituen.

Kontatu beharreko historia

Joan Mari Torrealdai euskaltzainak ondo ezagutzen du liburuaren mundua. Soziologo eta kazetari gisara gaiaren inguruko lan ugari egindakoa da; Euskaltzaindiko liburuzain izendatu dute berriki. Oraingo liburu honetan, ordea, arreta ez du jarri alderdi profesionalean, ezta historikoetan ere, Lazkaoko dokumentazio-gunean 'giza faktoreak' -Agirre faktoreak, hain zuzen- aparteko garrantzia baitu. Zeren eta Juan Jose Agirreren "egoskorkeriarik" eta "ausardiarik" gabe ezinezkoa izango baitzen ia bakarka, tarteka klandestinitataren mugan eta, azken urteotara arte, oso laguntza gutxirekin, egin duen lana burutzea.

Hori dela eta, "istorioz beteriko historia" kontatzen duen liburuko hari nagusia aita Agirreren azalpen luze bat da. Ez da hitzez hitz berak esana, Agirrek eta Torrealdai izan zuten zortzi orduko solasaren moldaketa baizik. Bigarren plano batean, Agirreren hitzen ondoanbeste askorenak daude, baita Lazkaoko artxibo eta bibliotekaren izaeraz eta ezaugarriez jabetzeko orduan asko laguntzen duten testu eta datuak ere.

"Alegian jaioa naiz 1930ean. Hamaika anai-arreben artean bigarrena naiz", irakur daiteke aurreneko paragrafoan. Azkeneko paragrafoak zera dio: "Bidea ibiliz egiten da, eta gure etorkizuna orain arte eman ditugun pausoen bidetik doa. Betiere, adi eta erne ingurua aztertuz, zer sortuko". Bien bitartean, ia berrogei urteko bizipen eta abenturak zabaltzen dira; "bere biziko lehen 40 urteak biblioteka bat zer zen jakin gabe" bizi ondoren, hurrengo 40ak ikuspegi askotatik eredugarria den dokumentazio-gunea eraikitzen eman dituen gizonarenak.

Irakurlearekin solasean balego bezala kontatzen du Juan Jose Agirrek nola sartu zitzaion liburu eta agiriekiko "droga" Montserrateko monasterioko liburutegian, Aita Marc-en ondoan; etxera itzulita, nola pasatzen zituen orduak eta orduak buruari bueltak ematen, Lazkaoko monasterioko liburu baliotsu eta ia abandonatuak nola organizatu eta zaindu asmatu nahirik... Eta nola hasi zen 1973an, 80 metroko liburutegian, lau hamarkadaren buruan Euskal Herriaren historia garaikidea ezagutu nahi duenarentzat ezinbesteko erreferentzia den dokumentazio-gunea sortzen.

Hori guztia, Torrealdairen ustez, "kontatu beharreko historia zen, belaunaldi berriek ezagutu behar dutena". Aldundiaren laguntzari esker egin duen lan honetan Juan Jose Agirreren ekarpena betikotu du Torrealdaik. Beste askorenek ere mereziko lukete antzeko lana. "Zenbat biografia interesgarri, zenbat bizimodu interesgarri ez ote ditugun ezagutu..., eta gero damutu jaso ez izanaz", azaldu zuen Torrealdaik, transmisionaren alorrean pertsonaia askoren testigantzak galdu izanak utzi duen hutsunea nabarmenduz.

Juan Jose Agirreren jasota dago, baina ez dago itxita, ezta gutxiago ere. Bere lanari segida emango dioten profesional bikainak ditu inguruan, baina lanean jarraitzen du; besteak beste, gainerakoek botatzen dituzten paperak jasotzen -azkenekoak, kafea hartzera zihoala lurrean ikusita, Bildu-ren batzuk-, jakinik egunen batean horiekin idatziko dela Historia, aspaldi biltzen hasi zen pegatina eta paskinekin idatzi den moduan. Lazkaoko Beneditarren dokumentazio-gunea esku onetan dago, profesionaltasun osoz kudeatutako zerbitzu bikaina izango da, zalantzarik gabe. Baina, atzo aurkeztu zen liburuari esker, ez dio sekula utziko Juan Jose Agirreren artxiboa izateari.